

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3383

AGINDUA, 2021eko maiatzaren 25ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, goi-mailako kirolariak eta teknikariak deklaratzeko dena.

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat etorritik, eta Dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari, eta goi mailako epaileen izaera honako hauei emango die: nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu, eta kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak 2021eko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, bidezko proposamena egin zuen.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari eta teknikari, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Deklarazioa indarrean jarriko da agindu hau jakinarazten denean.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 25a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

ERANSKINA

GOI-MAILAKO KIROLARI, TEKNIKARI EDO EPAILE IZENDATUTAKOEN ZERRENDA

Abizenak, Izena	Espediente zk.	Modalitatea	Kategoria
Aguinalde Aquizu, Julen	833/21/D	Eskubaloia	Kirolaria
Arregui Altuna, Olatz	843/21/D	Piraguismoa	Kirolaria
Calvo Barbero, Tania	839/21/D	Txirindularitza	Kirolaria
Diaz Rivas, Virginia	831/21/D	Arrauna	Kirolaria
Elorza Lizarra Ione	841/21/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Erbina Arana, Lide	837/21/D	Errugbia	Kirolaria
Etxezabal Etxabe, Mainer	842/21/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Lopez de Uralde Martinez de Soria, Purificación	835/21/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Pla Vegué, Barbara	832/21/D	Errugbia	Kirolaria
Rojo Larrañaga, Lorea	838/21/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Quiñones Goicoechea, Mariasun	836/21/D	Futbola	Kirolaria
Romero Villanueva, Alvaro	834/21/D	Neguko kirolak	Kirolaria
Varela Ona, Marta	840/21/D	Herri-kirolak	Kirolaria
Zudaire Borrezo, Nahia	844/21/D	Kirol egokitua	Kirolaria
Artolazabal Royo, Ainhoa	122/21/T	Txirindularitza	Teknikaria
Kano Kortajarena, Ane	121/21/T	Surfa	Teknikaria
Morales Sarmiento, Marcos Cesar	120/21/T	Arrauna	Teknikaria
Murua Olazabal, Jon	119/21/T	Kirol Egokitua	Teknikaria